

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

350/2016 Foru Agindua, azaroaren 21koa, deialdia eta oinarri espezifikoak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, erdi-mailako teknikarien klasea, basogintzako ingeniari teknikoa) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 499/2016 Erabakiaren bidez onartu zen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2016rako enplegu eskaintza, zeinean jasota baitaude dagozkien hautaketa prozesuen bidez hornitu beharko diren plazak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren azaroaren 18ko 337/2016 Foru Aginduaren bidez oinarri orokorrak onartu ziren, aipatu den enplegu publikoaren eskaintza horren ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrearen zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautuko dituztenak.

Hautaketa prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko plazen deialdia arautu behar duten oinarri espezifikoak argitaratzea, eta horietan plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztu beharko dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritz,

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. Oinarri hauen gai diren hautaprobetarako deia egitea.

Bigarren artikulua. I. eranskin moduan jasotzen diren oinarri espezifikoak onartzea, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, erdi-mailako teknikarien klasea, basogintzako ingeniari teknikoa) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak.

Hirugarren artikulua. II. eranskin moduan jasotzen den gai zerrenda onartzea.

Laugarren artikulua. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz –azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 21a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

I. ERANSKINA**OINARRI ESPEZIFIKOAK**

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALATEKNIKOA, ERDI-MAILAKO
TEKNIKARIEN KLASEA, BASOGINTZAKO INGENIARITEKNIKOA (kodea: 24316)

1. DEI EGITEN DEN PLAZAK

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko erdi-mailako teknikarien klaseko 5 plaza –basogintzako ingeniari tekniko, A taldea, A2 (B) azpitaldea– oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

– 3 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin.

– 2 plaza barne sustapeneko txanda orokorrean, derrigortasun datarik gabeko 3. hizkuntza eskakizunarekin.

2. BETEKIZUNAK

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, basogintzako ingeniari tekniko titulua edo gradu baliokidea eduki beharko da, edo horiek jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki. Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztatgia eduki beharko da.

Beharrezkoa izango da, orobat, B motako gidabaimena edukitzea.

3. HAUTAKETA PROZESUA**3.1. Oposizio aldia**

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak.

3.1.1. Lehenengo ariketa:**a) Sistema irekia:**

Ariketa honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa hamar (10) puntu da. Horren barruan nahitaezko bi proba egin beharko dira:

– Lehenengo proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati komuneko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

– Bigarren proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati espezifikoko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Lehenengo probara aurkeztu ez direnak ezin izango dira inola ere bigarren probara aurkeztu.

Zuzeneko puntuazioa ondoko formula honen emaitza izango da: puntuazioa erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena da ($P = Z - O/3$). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, gutxieneko bost (5) puntuko azken puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila.

Kanporatuta geratuko dira bi probetan lortutako puntuazioak baturik bost (5) puntutara heltzen ez diren izangaiak.

Epaimahaiak gutxienerako bost (5) puntuko azkeneko puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila ezarri eta gero, zuzeneko puntuazioak azken puntuazio bihurtuko dira, proportziozko banaketa baten arabera, halako moduan non hamar (10) puntuko azken puntuazioa bat datorren gehienez ere lor daitekeen zuzeneko puntuazioarekin. Eragiketa hauek guztiak izangaiak nortzuk diren jakin gabe egingo dira.

b) Barne sustapenerako sistema:

Ariketa hau proba bakarra izango da, eta bat etorriko da sistema irekiko bigarren proba izenekoarekin.

Sartzeko sistema honetara lehiatzen direnen gehieneko puntuazioa, guztira, hamar (10) puntu izango da, eta gainditzeko irizpideak a) idatz zatian ezarritako berberak izango dira.

3.1.2. Bigarren ariketa

Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, honekin batera doan gai zerrendaren zati espezifikoarekin lotuak, hark erabakitzen duen gehieneko denboran.

Ariketa hau egitean izangaiek bakar-bakarrik erabili ahal izango dituzte epaimahaiak, ariketaren izaera eta edukia kontuan harturik, erabakitzen dituen kodeak eta antzekoak edo bestelako material teknikoak.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hamasei (16) puntura kalifikatuko da, eta zortzi (8) puntuko kalifikaziora heltzen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

3.2. Euskara proba

Euskara proban, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da izangaiak hautatzen duen 1., 2., 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba ginez.

Dauden lau hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatuta daukatenek edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenek euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Euskara Zerbitzua - Funtzio Publikoko Zuzendaritza - Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila. Probintzia plaza, 14-5.a 01001. Gasteiz.

Hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatzea hautaketa prozesuaren gainerakoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren gainean baloratuko da, ondoko era honetan:

- 1. HE: 1,63 puntu.
- 2. HE: 2,03 puntu.
- 3. HE: 3,58 puntu.
- 4. HE: 3,98 puntu.

3.3. Lehiaketa aldia

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

3.3.1. Esperientzia

a) Sistema irekia:

Herri administrazioetat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere sei (6) puntutaraino, 0,05 punturekin edozein herri administrazioetan A2 (B)

taldeko lanpostu edo eginkizunetan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta horretan jarduteko beharrezkoa bazen basogintzako ingeniari tekniko titulua edukitzea, edo gradu baliokidea, edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzuen errentamendu kontratu zibil edo merkataritzakoen, beken eta prestakuntza praktiken bitartez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioiko aurretiazko zerbitzuen aitortpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

b) Barne sustapeneko sistema:

Lan esperientzia gehenez ere sei (6) puntutaraino baloratuko da, 0,05 punturekin edozein herri administrazioetan C (C1) taldeko eskaletan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, eta 0,10 punturekin edozein herri administrazioetan B (A2) taldeko eskaletan lan egindako hilabete oso bakoitzeko. Bakar-bakarrik konputatuko da Arabako Foru Aldundiak hirurtekoen ondorioetarako aitortutako antzintasuna.

3.3.2. Informatika ezagutza

Gehenez ere 0,50 puntutaraino ITtxartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, ondoko baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Word XP aurreratua	0,10
Microsoft Word 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point 2003	0,10
Microsoft Power Point 2007	0,10
Microsoft Power Point 2010	0,10
Microsoft Excel XP aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Access XP aurreratua	0,10
Microsoft Access 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2010	0,10
Microsoft Outlook 2003 (gaztelania)	0,10
Microsoft Outlook 2003 (euskara)	0,10
Microsoft Outlook XP	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Internet aurreratua	0,10
Office XP	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharra-goenak.

Arabako Foru Aldundiak erakunde jaulkitzaileari ofizioz eskatuko dio izangaiek lortu dituzten egiaztapenak ziurtatzeko, oinarri orokorretan ezarritako epearen barruan.

3.4. Praktika eta prestakuntza aldia

6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

II. ERANSKINA

GAI ZERRENDA

GAI KOMUNAK

1. gaia. Espainiako Konstituzioa. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).
2. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak: Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontu Auzitegia, Eskualdeen Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.
3. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10-12 artikulua). II. titulua: Euskal Herriko aginteak (24-39 artikulua).
4. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (I). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren antolamenduari buruzkoa (1-14 artikulua).
5. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (II). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren antolamenduari buruzkoa (15-33 artikulua).
6. gaia. Enplegu Publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 artikulua). Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokaera kodea (52-54 artikulua).
7. gaia. Enplegu Publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea (55-68 artikulua).
8. gaia. Administrazioa Prozedura . 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena. Jarduera arau orokorrak (13-28 artikulua). Epe mugak eta epeak (29-33 artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37-42 artikulua).
9. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Xedea eta aplikazio eremua (1-4 artikulua). Kontratu motak (5-11 artikulua). Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak (18-21 artikulua).
10. gaia. Datuen Babesa. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, datu pertsonalen babesarena. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Datuak babesteari buruzko printzipioak (4-12 artikulua). Pertsonen eskubideak (13-19 artikulua).
11. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onarena. Aplikazio eremu subjektiboa (2-4 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12-16 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzea (17-22 artikulua).
12. gaia. Berdintasun Polititak. Printzipio orokorrak eta babesa. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa: 3-22 artikulua). EAEko herri administrazioen esparruko neurriak (Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa: 18-22 artikulua).

1. GAI ESPEZIFIKOAK

13. gaia. *Fagus sylvatica* L. Espeziea eta bere ekologia. Berezko eremua eta banaketa Araban. Arabako multzoen egitura eta ezaugarriak eta horien esangura Natura 2000 Sarean. Basogintza. Basoberritzea. Multzo horiekin loturiko biodibertsitatea. Zuraren ezaugarriak era erabilerak.

14. gaia. *Quercus robur* L., *Quercus petraea* Liebl. eta *Quercus pyrenaica* Willd. Espezieak eta beren ekologia. Berezko eremua eta banaketa Araban. Arabako multzoen egitura eta ezaugarriak eta horien esangura Natura 2000 Sarean. Basogintza. Basoberritzea. Multzo horiekin loturiko biodibertsitatea. Zuraren ezaugarriak era erabilerak.

15. gaia. *Quercus ilex* L. eta *Quercus faginea* Lamk. Espezieak eta beren ekologia. Berezko eremua eta banaketa Araban. Arabako multzoen egitura eta ezaugarriak eta horien esangura Natura 2000 Sarean. Basogintza. Basoberritzea. Multzo horiekin loturiko biodibertsitatea. Zuraren ezaugarriak era erabilerak.

16. gaia. *Pinus sylvestris* L. Espeziea eta bere ekologia. Berezko eremua eta banaketa Araban. Arabako multzoen egitura eta ezaugarriak eta horien esangura Natura 2000 Sarean. Basogintza. Basoberritzea. Multzo horiekin loturiko biodibertsitatea. Zuraren ezaugarriak era erabilerak.

17. gaia. Intsinis pinua *Pinus radiata* D. Don. Espeziea eta bere ekologia. Berezko eremua eta banaketa Araban. Arabako multzoen egitura eta ezaugarriak eta horien esangura Natura 2000 Sarean. Basogintza. Basoberritzea. Multzo horiekin loturiko biodibertsitatea. Zuraren ezaugarriak era erabilerak.

18. gaia. *Pinus pinaster* Ait., *Pinus halepensis* Mill. eta *Pinus nigra* Arn. Espezieak eta beren ekologia. Berezko eremua eta banaketa Araban. Arabako multzoen egitura eta ezaugarriak eta horien esangura Natura 2000 Sarean. Basogintza. Basoberritzea. Multzo horiekin loturiko biodibertsitatea. Zuraren ezaugarriak era erabilerak.

19. gaia. *Fraxinus*, *Alnus*, *Acer*, *Betula*, *Prunus* eta *Sorbus* generoetako Arabako zuhaitz espezieak. Banaketa, Arabako multzoen egitura eta ezaugarriak eta horien esangura Natura 2000 Sarean. Basogintza. Basoberritzea. Multzo horiekin loturiko biodibertsitatea. Ibaiertzeko basoen berritzea eta basogintza kudeaketa.

20. gaia. *Pseudotsuga menziesii* (Mirb) Franco, *Chamaecyparis lawsoniana* Parl. eta *Picea*, *Abies*, *Larix* eta *Cedrus* generoak. Arabako zona ezberdinetako estazio baldintzetara ongien moldatzen diren espezieak. Haien ekologia. Arabako multzo nagusien egitura. Multzo horiekin loturiko biodibertsitatea. Basogintza tratamenduak. Zuraren erabilerak.

21. gaia. Baso suteak: arrisku faktoreak, horiek sortzen dituzten zio orokorrak. Arrisku aroak Araban eta berariazko ziorik ohikoenak. Baso suteen aurkako borroka: prebentzio neurriak, baso multzoetako azpiegitura eta horien antolamendua, bideak eta sarea, ur tokiak, antolaera eta trazadurarik egokiena. Itzaltzea: arauak, metodoak eta baliabideak.

22. gaia. Basoa lehengoratzeta. Espezieen aukeraketa. Ereintza eta landaketa: abantailak eta alde txarrak. Basoberritzearen prestalanak eta osagarrizko lanak. Makineria eta tresnak. Landaketetan erabili beharreko landareen adina, tamaina eta baldintzak. Birsorkuntzarako baso materialaren sailkapena. Kostuak eta baldintza teknikoan agiria.

23. gaia. Arabako baso masetako basogintza lanik ohikoenak. Lanak egiteko eta antolatzeke baldintzak. Kostuak eta baldintza teknikoan agiriak. Mozketa, basoko produktuen biltegitratzea, ateratzea eta garraioa: lanen plangintza eta antolaketa.

24. gaia. Baso bideak: sailkapena. Bidegintza faseak. Dentsitatea. Errentagarritasuna. Makineria. Diseinua eta kostuak. Mantentzea. Obra lagungarriak.

25. gaia. Baso estazioen kalitatea: Kontzeptua. Masaren garaieraren arabera baso estazioaren kalitatea zehazteko irizpideak Espezie adierazgarriak. Kalitate kurbak: prestaketa eta aplikazioak. Tarifak, kubikazio taulak eta ekoizpen taulak. Kontzeptuak. Kontuan hartu beharreko

aldagaiak eta horiek lantzeko metodoak. Laginaren aukeraketa eta neurketa. Erabilera, eta izakinak kalkulatzeko haien erabilera sortzen diren akatsak. Ekoizpen taulen erabilera baso masen kudeaketan, eta haien mugak.

26. gaia. Mendi publikoetan larratzea. Larregintza: Arabako natura ingurunean ohikoenak diren belar espezieak. Larreen aprobetxamendua eta hobekuntza. Baso-larregintza eta zooteknia: abere espezie eta arrazak, mendietan duten eragina, azienda zamaren erregulazioa, aldiak. Larre antolamendurako proiektuak.

27. gaia. Mendien antolamendua: helburuak. Unadaka antolatzea: aplikazioa Arabako Lurralde Historikoko mendietan. Arabako mendiak antolatzeko baldintza teknikoak, 2012ko martxokoa. Baso kudeaketa jasangarrirako plan teknikoak, kontuan izanik Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 61/2010 Foru Dekretua, abenduaren 14koa. Naturatik hurbileko basogintza: kontzeptua eta aplikazioak.

28. gaia. Baso kudeaketa jasangarria. Kudeaketa jasangarria ziurtatzeko sistemak. Irizpide eta adierazleak. PFEC. Ziurtatze sistemen analisia, ondorioak eta etorkizuna.

29. gaia. Baso kudeaketa Natura 2000 Sareko Arabako naturaguneetan. Natura 2000 kudeaketa planak. Helburuak. Kontserbazio neurriak. Europar Batasuneko finantza esparrua, Natura 2000 Sareko Arabako naturaguneetako baso kudeaketari buruzkoa.

30. gaia. EAEko 2015-2020ko Landa Garapen Jasangarriko Plana (LGJP) eta bigarren habeko neurriak: baso laguntzen plana eta horren aplikazioa Arabako Lurralde Historikoa.

31. gaia. Mendien arloko arau hausteak eta zehapenak Arabako Lurralde Historikoko mendien Foru Arauan (11/2007 FA, martxoaren 26koa) eta mendien Legean (43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa) eta horren aldakuntzan (21/2015 Legea, uztailaren 20koa). Tipologia. Zehapen prozedura: hasiera, instrukzioa eta amaiera. Prozedura laburtua. Zehapenen kontrako errekurtsoak.

32. gaia. Mendiak Arabako Lurralde Historikoko mendien Foru Arauan (11/2007 FA, martxoaren 26koa) eta mendien Legean (43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa) eta horren aldakuntzan (21/2015 Legea, uztailaren 20koa). Mendi kontzeptua eta definizioak. Baso administrazioa (Mendien Foru Arauaren II. titulua). Mendien sailkapena eta araubide juridikoa (Mendien Foru Arauaren IV. tituluko I. kapitulua).

33. gaia. Arabako onura publikoko mendien katalogoa: aurrekariak eta historia. Arabako baso jabetza publikoaren analisia. Katalogoaren materialtasun fisikoa. Katalogoa eskuratzea eta publizitatea. Mendi bat katalogatzeko administrazio prozedura. Onura publikoko mendien katalogoa Arabako Lurralde Historikoko mendien Foru Arauan (11/2007 FA, martxoaren 26koa, II. kapitulua) eta mendien Legean (43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, 16-18bis artikulua eta 22. artikulua) eta horren aldakuntzan (21/2015 Legea, uztailaren 20koa).

34. gaia. Onura publikoko mendien erabilera Arabako Lurralde Historikoko mendien Foru Arauan (11/2007 FA, martxoaren 26koa, IV. tituluko III. kapitulua).

35. gaia. Baso jabetzaren defentsa: jabetzaren berreskuratzea eta mendien mugaketa eta mugarritzea. Horiek egiteko jarraibideak. Titulartasun publikoko mendien mugaketa Arabako Lurralde Historikoko mendien Foru Arauan (11/2017 FA, martxoaren 26koa, IV. tituluko IV. kapitulua) eta mendien oinarriko Legean (21. artikulua). Mendi publikoen ikerkuntza eta haien jabetzaren berreskuratzea mendien oinarriko Legean (20. artikulua).

36. gaia. Mendietako baliabideen aprobetxamendua: orokorra, zurarena, egurketak, larreak eta luberritzeak Arabako Lurralde Historikoko mendien Foru Arauan (11/2017 FA, martxoaren 26koa, V. tituluko II, III, IV, V eta VI. kapituluak).

37. gaia. Arabako Lurralde Historikoa onddo, landare, lore eta basa-fruituen aprobetxamendua arautzeko eta antolatzeko arautegia, Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuaren bidez onartua.

38. gaia. Motordun ibilgailuak Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako toki erakundeen onura publikoko eta jabari publikoko mendietan zirkulatzeko araudia, Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 9ko 10/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua.

39. gaia. Intsektu izurriak Arabako baso masetan. Thaumotopoea pityocampa eta beste lepidoptero hosto-galtzaileak. Koleoptero zulatzaileak konifero multzoetan. Espezieen deskribapena, ziklo biologikoa eta ohiturak. Banaketa, identifikazioa eta kalteak. Bizkarroiak, harripariak eta gaixotasunak. Populazio dinamikak. Prebentziozko basogintza. Kontrol eta borroka tratamenduak.

40. gaia. Arabako konifero eta hostozabal multzoetako gaixotasunik garrantzitsuenak. Ostalariak. Patogenoak. Sintomatologia eta kalteak. Arrisku faktoreak. Kontrolatzeko erak. Berrogeialdiko baso gaixotasunak.

41. gaia. 42/2007 Legea, natura ondare eta biodibertsitatearena. 16/1994 Legearen, Euskal Herriko natura babestekoaren, testu bateratua. Printzipio orokorrak, naturaguneak, sailkapena, definizioa eta izendapena. Basa espezieak, debekuak. Salbuespenak.

42. gaia. Europako 92/43/EEE zuzentaraua ("Habitatak") eta 2009/147/EE zuzentaraua ("Hegaztiak"). Printzipio orokorrak, debekuak, naturaguneen kontserbazio helburuak eta betebeharrak, eranskinak, salbuespenak.

43. gaia. Parke naturalen plangintza eta kudeaketarako tresnak. Antolamendu planak eta erabilera eta kudeaketa planak. Izapidetzea. Kudeaketa organoak.

44. gaia. Kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE) Araban. Horiek deklaratzeko izapideak eta historia, deskribapena, babes eremuak, kontserbazio helburuak, araudiak eta kudeatze zuzentarau edo neurriak.

45. gaia. 139/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, babes bereziko araubidean dauden basa espezieen zerrenda eta Espainiako espezie mehatxatuen katalogoa garatzekoa. 167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa, arautzen duena Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda, eta hori eguneratzeko geroagoko aginduak. Kategoriak, espezieak zerrendan sartzea, talde eta espezie nagusiak, debekuak, kudeatze betebeharrak.

46. gaia. 630/2013 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, espezie exotiko inbaditzaileen espainiar katalogoa arautzen duena. Arazoak, arauak eta debekuak, Arabako espezieak, estrategiak eta kontrolatzeko edo suntsitzeko neurriak.

47. gaia. Europar bisoia eta otsoa Araban. Presentzia gaur egun eta historian zehar. Mehatxuak Kudeatze neurriak.

48. gaia. Hegazti harrapariak Araban. Espezie nagusiak. Bilakaera. Mehatxu maila. Arazoak. Kudeaketa jarraibideak.

49. gaia. Faunaren suspertegiak. Helburuak. Harrera, sendaketa eta errehabilitazioko jarraibideak. Garapena Araban.

50. gaia. Ingurumen hezkuntza. Kontzeptua, helburuak eta metodologia. Jardun eremuak.

51. gaia. Eremu degradatuen lehengoratzea (I). Teoria eta diseinu printzipioak. Lehengoratzearen ekologia eta paisaia oinarriak. Materialak eta beren erabilera ingurumena lehengoratzeke proiektuetan: landaretza, material geldoak. Zehaztapen teknikoak.

52. gaia. Eremu degradatuen lehengoratzea (II). Arazoak eta konponbide teknikoak zabor-tegi eta hondakindegietan, meatze ustiategietan eta bide azpiegituren eraikuntzak eragindako eremuetan.

53. gaia. Bioingeniaritza. Aplikazio eremua. Eraldatutako eremuak oneratzeko materialak, tratamenduak eta berariazko teknikak.

54. gaia. Arabako Lurralde Historikoko ibaiertzak eta hezeguneak. Ezaugarriak, motak eta banaketa espaziala. Babes figura juridikoak eta antolamendu planak. Egoera oro har eta kontserbazio egoera. Lehengoratzeko oinarri eta teknikak.

55. gaia. Habitaten eta paisaien zatikatzea: arazoak Europa, eskualde eta probintzia mailan. Ekologia eta paisaia konektibitatea: sare funtzional baten planteamendurako oinarriak. Azterlanak eta ekimenak Euskal Herrian eta Arabako Lurralde Historikoan.

56. gaia. Azpiegitura berdeak: Arabako ibilbide berdeen sarea. Motak eta ezaugarriak. Lege esparrua: 1/2012 Foru Araua. Sarearen antolamendua, babesak eta kudeaketa.

57. gaia. Paisaiaren azterlanak. Europako, Espainiako eta EAEko lege esparrua. Paisaia babesteko, antolatzeko eta kudeatzeko tresnak.

58. gaia. Proiektu, plan eta programen ingurumen eraginaren ebaluazioa. Helmena eta edukia. Ebaluazio metodoak eta teknikak. Eraginaren tipifikazioa. Ingurumen jarraipen eta jagoletzako programak.

59. gaia. Ingurumen eraginaren ebaluazioaren arloko lege xedapenak. Europako zuzentzarauak eta Espainiako eta EAEko lege esparrua. Arabako Foru Aldundiaren eskumenak.

60. gaia. Garapen jasangarria. Zedarrak eta hartutako konpromiso garrantzitsuenak mundu eta Europa mailan. Estrategiak eta planak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Arabako Lurralde Historikoan. Printzipio estrategikoak, helburuak eta ekintza lerroak.